

geu gasteiz

FRANKEO ITUNDUA 48/27



CHI va piano, va lontano



BERTSOLARIAK GASTEIZKO PLAZARA

urtarrilak **13**, larunbata
Principal antzokian
arratsaldeko 8etan

*guke
historiak
istorioak*



*geu gasteiz
aldizkaria
3. urteurrena*

Sarrerak

*Egunean bertan
Principal
antzokian 700 pta*

*Aldez aurretik
Bagare Euskal
Tokian, Herrikoia
eta Axular
liburudendetan
500 pta.*

**Xabier Amuriza
Jon Sarasua
Maialen Lujanbio
Unai Iturriaga
Jon Lopategi
Iñaki Murua**


antolatzailea

babesleak

GEU 
GASTEIZ EUSKALDUNA

Egunkaria

**ARABAKO
BERTSOLARI
ELKARTEA**



Diputación
Foral de Alava



Arabako
Foru Aldundia



egin



Eskola mapa dela eta...

Zuzendaria:

JOSU KINTAS

Erredakzioburua:

XABIER ZABALETA

Erredakzio-batzordea:

LEIRE LOPEZ DE
ABERASTURI

SUSANA CALLEJA

ITZIAR MTZ. DE SANTOS

ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL

LOREA ZURIMENDI

MIEL ANJEL ELUSTONDO

DAVID ALVEZ

EDU LOPEZ DE LUZURIAGA

Maketazioa:

ALEX BADILLO

Itzultzailea:

IÑAXIO LOPEZ DE ARANA

Komikia:

IÑIGO SARASOLA

Marrakziak:

AITZIBER IRIONDO

Publizitatea:

KARLOS FDEZ. DE BETOÑO

Argazkilariak:

EDORTA SANZ

LUKAS ETXEBERRIA

JOSEBA OLALDE

DAVID AGUILAR

JOSEBA UNZALU

Kolaboratzaileak:

TXIPI ORMAETXEA

JUAN JOSE KASTRESANA

IÑAKI GAUNA

TXABI ARNAL GIL

MIKEL GARMENDIA

KARLOS ETXENAUSIA

INPRIMATEGIA:

GERTU KOOP. E.

(ZUBILLAGA, OÑATI)



AZAROAREN 23AN

Iñaxio Oliveri jaunak Legebiltzarrean aurkeztu zuen Eskola Maparen proposamena altxor preziatuena bezala izkutatua zaie irakaskuntza publikoan parte hartzen duten guztiei. Argira agertzearekin batera aspektu kezkagarri batzuk begibistan geratu dira, hauexek, besteak beste:

- Gaur egungo OHOn dagoen B hizkuntz eredua Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) beste bi urtez luzatzen denez, D eredura pasatzeko aukera nabarmen atzeratzen da, ikasleek 16 urte izan arte, hain zuzen ere.

- Lehen Hezkuntzan B eredua aukeratu duten ikasle guztiei orain arte Batxilergo D eredu egiteko aukera zuzena eman zaien bitartean, hemendik aurrera ikastetxe askotako ikasleek (Lehen Hezkuntza A-B ereduak ikastetxeetan ikasi dute-nei, hain zuzen ere) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza D eredu egiteko bide zuzenik ez zaie zehazten. Are gehiago, ematen zaien bidea DBH A eta B eredu eta Batxilergo berriak A eredu izango duten ikastetxe haundietara joatea da.

- Gutxienez hurrengo 2 edo 3 urteetan ikasle batzuk Lehen Hezkuntzako ikastetxeetatik irtingo dira beste eraikuntza

batera DBHko lehenengo zikloa (bi urtez) egitera eta, ondoren, DBHko 2. zikloa eta Batxilergo berriak hirugarren ikastetxe batean egingo dute.

Aipatutako aspektu hauek argitu beharra dago erreformaren ezarpenak irakaskuntza publikoa bultzatzea nahi badugu.

Eskola Mapak ziurtatu beharko dituen gutxienezko baldintza nagusien artean lehentasunezko lekua bete behar dutenak ondoko hauek izan behar dute irakaskuntza prozesuan parte hartzen dugun askoren ustez:

- Iñaxio Oliveriren aurkezpenean "Hizkuntz eredu jarraituena" agertzen zen helburu nagusienetarikoa bat bezala. Hau dela eta, Lehen Hezkuntzan B eredua hautatu duten ikasleek DBH B-D edota D eredu ikastetxeetan egiteko bide zuzena bermatu behar zaie, horrela giro euskaldunean murgilduz ikasleen elebitasuna guztiz ziurtatu ahal izateko, orain arteko esperientziak balioztatu duen bezala. Izan ere, Koldo Mitxelena institutuak gaur egun B eta D eredu 22 ikastetxe ezberdinetatik etorritako ikasleak ditu eta izan ditu horietako askok Unibertsitatean ikasketak euskaraz egingo dituzte eta egiten ari dira. Bestela Lehen Hezkuntzan eginiko aurrerakuntzak eta ahaleginak ezerezean gera daitezke.

- B-D eta D eredu DBHko ikastetxeetako irakasle osoak, irakaskuntza prozesuaren eragile nagusienetarikoa bat bezala, euskalduntzeko prozesua amaituta behar luke, eta horretarako administrazioak bide ugariago edota berriak ireki behar lituzke.

Ikastetxeen hornikuntza egokia ziurtatu behar da DBH eta Batxilergo garapenerako behar

diren baliabide guztiak ezarritako inolako murrizketarik egin gabe instalakuntzen berrikuntzei eta moldaketei dagokienean (gela arruntak, gela bereziak, aukerakotasunerako gela osagarriak, hautatuzkotasunetik eratorritako premiei erantzuteko gela osagarriak, erdi eta goimailako prestakuntza zikloetarako beharri-zanak,...)

- Irakasle goiari dagozkion aspektuetan tutoretzak eta koordinazio bilerak indartzeko orduak eta leku fisiko egokiak, Bigarren Hezkuntzako zikloen arteko koordinaketak eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen arteko harremanak bermatu behar dira. Gai guzti hauekin lotuta, materialen prestakuntzarako D eredu material bibliografiko eta bestelakoa, ugaria izateko baldintzak eman behar dira.

Hau dena lortzeko bidea, gehiegi zentralizatu gabeko eta tamaina erdiko ikastetxeak osatzea izan daiteke. Aurreikusten ditugun abantailen artean honako hauek: ikasleen bizilekueetatik hurbil egotea, barneko funtzionamendurako egokiagoak dira, berezko izaera hezkuntz ereduaren arabera definitzeko erraztasun handiagoak, atxikitako Lehen Hezkuntzako ikastetxeekin harremanak izateko erraztasun gehiago...

Ez dezagun gal erreforma ezartze honek irakaskuntzarako izan ditzakeen aurrerapausu handi horiek emateko aukera eta egin ditugun Eskola Maparako aportazioak. Proposa ditugun irakaskuntza publiko indartzeko beharrezkotzat jotzen ditugun aldaketak.

Luis de Luz

Koldo Mitxelena Institutoko Zuzendaria

gasteizko euskaldunen aldizkaria

Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfno. eta faxa 22 21 53

argitaratzailea:



6.000 Aleko Tirada
Lege-Gordailua VI-582/92

GEU GASTEIZEK ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

geugasteiz aldizkaria etxean dohain jaso nahi dut.

IZENA:

ABIZENAK:

KALEA:

Kode Postala:

HERRIA:

Pisua:

ZKIA:

kalea mintzo El Corte Ingles

AZKEN BOLADAN kontsumitzeko aukera berriak agertu zaizkigu Gasteizen. Adibide aipagarriena, *El Corte Inglés*en inaugurazioa izan daiteke. Egia esan, *El Corte Inglés* famatuak lehenagoko *Galerias Preciados*en hutsune fisiko eta komertziala beteko du. Kasu hauetan, kontsumitzaile askoren poza, denda txikietako jabeen haserrearekin lot daiteke. Edonola ere, erosketak egiteko unean zein izaten da gasteiztarron joera?

*Zein iritzi duzu El Corte Inglésaren inaugurazioari buruz?
Erosketak egitera denda txiki ala handietara joaten zara?*

Kazetaria: Juan Jose Kastresana "Gutxi" • Argazkiak: Joseba Unzalu



ARTURO GANDARIAS
artista

- 1.- Alde batetik, El Corte Ingles irekitzea ondo iruditzen zait, baina bestetik Gasteizek ez dauka horrelako komertzio haundi baten beharrik.
- 2.- Oso gutxi kontsumitzen dudanez beti auzoko dendetara joaten naiz.

Bertsoak

Urte berriari

EGILEA:
Katty Goikoetxea



Bejondeigula !

Duela hainbat hilabete handitu egin genuen aldizkariaren tirada. Dena den, agortu egin zaigu berriro ere. Beraz, izena oraintxe eman diguzutenok ez duzue momentuz jasoko. Pazientzia izan!

Larogeita hamabosgarrenari
jarri diogu eskela
orain atzean utzi duguna
pasatu izan da horrela
jai eta dantzan pasatu degu
sagardoz betez sabela
urte berria hasi behar da
ohiturak dion bezela
txanpain botila ireki zazu
berria ja datorrela

Jada atzean geratu zaigu
urte zaharra izan zena
helburu asko ez ditut bete
horrexegatik daukat pena
ez naiz erortzen etsipenean
ta erabiliak kemena
saiatuko naiz aurren betetzen
lehen zin egindako dena
urte berrirako behintzat daukat
bihotzan itxaropena



txistorrada

Utarrilaren 26an
entzun ez bazara gorra
giro euskaldun eta hainbat sorpresa
gaztetxean duzu txistorra

8etatik aurrera aukera zabalik
joan zaitez arinki horra,
han aurkituko duzun jendea
ikaragarri jatorra



AURORA
BARRENETXEA
etxekoandrea

AINHOA AGIRRE
ikaslea

IÑIGO ORTIZ DE
ZARATE
ikaslea

JOAKIN DELGADO
langabetua

NEREA MANRIQUE
ikaslea

1.- Nahiz eta horrelako lekuetan gustora ez egon, ondo iruditzen zait.
2.- Normalean betiko dendatan egiten ditut erosketak, batez ere, erosoagoa delako eta ohituta nagoelako.

1.- Ondo deritzot, gero eta leku gehiago badugu hobe.
2.- Denda txikietan jakina. Nik adibidez, erosketa gehienak Kutxi kalean egiten ditut.

1.- Nik uste dut orokorrean ondo dagoela edo behintzat hori da jendeak esaten duena. Halere, ez dakit beharrezkoa ote den.

1.- Egia esan bost axola dit. Dena den, denda txikientzat kaltegarria izango dela susmatzen dut.
2.- Denda txikietan, etxe ondoan dauzkagun dendetan erosoagoa delako.

1.- Ideia ona iruditzen zait, baina komertzio txikiek ez dute berdin pentsatuko, horrelako saltoki handiekin ezin baitute konpetitu.
2.- Denda txikiak nahiago ditut. Gauza zehatz bat erosterakoan, diska bat adibidez, musika-dendak aukeratzen ditut.

txapelketa

ARABA gure lurra

1. NOLA DUTE IZENA GASTEIZKO AIREPORTU ZAHARREKO LUR-SAILEK?
2. ZEIN HERRITAN JAIO ZEN FRANCISCO GALDOS TXIRRINDULARIA?
3. ZEIN BAILARATAN DAUDE LAHOZ ETA LALAISTRA HERRIAK?

Abenduko irabazleak:
Esther Garcia de Vicuña
Oscar Santos Martin



Zinema edo futbolerako sarrerak irabaz ditzazkezu

ZURE BETAURREKOAK 30 MINUTUTAN



Andre Maria Plaza • Olagibel 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Zuri gero eta zerbitzu hobea ematen ahalegintzen garela eta, teknologia aurreratuenari esker, zure betaurreko graduatuak 30 minututan* eskeintzen dizkizugu. Eta zerbitzu optikoetan 1 aren garantiarekin, jakina.


(*) enkargu lenteak izan ezik

**NOLAKO
HALAKO**

Bernardo Atxaga

**IDAZKERA
IZAERA**

jose Irazu Garmendia, seguru asko, izen ezezaguna da askorentzat. Izan ere, gure txoko honetara ekarri dugun idazle sonatu hau gizon barnekoia, begirakorra eta gordea da. Bere barrenekoa lagunminekin baino ez du garbitzen, eta hauekin ere garbiki eta zuhur joka ohi du ez baitzaio batere gustatzen bere burua inolako babesik gabe uztea. Hori dela eta, jendearen aurrean Jose Irazu, Bernardo Atxaga bilakatzen zaigu eta izen horrekin ezagutzen dugu gehienok.



ATXAGA, EDO JOSEBA, nahiago duzuen bezala (azken finean baten azpian bestea izkutatzen da) oso ondo ezagutzen du zein den inguruan duen errealitatea eta zein garaitan bizi den. Hau da, ez dauka

inolako arazorik errealitatea objebo-ki ikusteko. Gizaizatearen logika bilatu du eta, gu-txienez, bere existentzia-

geu **gasteiz**
aldizkaria

**PUBLIZITATEA
TARIFAK**

**zure publizitatea...
euskaraz**

**Barruko orrialdeak orrialde
osoa**

18 modulo: (3 x 6) 30.000 pta.

orrialde erdia

9 modulo: (3 x 3) 15.000 pta.

Bestelako moduloak

modulo 1: (1 x 1) 2.000 pta.

2 modulo: 5.000 pta.

(2 x 1 edo 1 x 2)

3 modulo: 5.000 pta.

(3 x 1 edo 1 x 3)

arcaya

Portal de Villarreal, 22-24

Tfnoa: 26 06 58

Portal del Rey, 21

Tlfnoa: 28 08 69

SOINUA

IRUDIA

ARGIZTAPENA

ELEKTRAGAILUAK

OPARIGAIK



GORETTI

ILEAPAINDEGIA

San Antonio, 29-Behea

Tfno: 13 18 55

du. Bere literatur lanak mezu sozialez josita daude. Horietako asko ohartu gabe pasatzen badira ere, bigarren edo hirugarren irakurketa egiten badugu Josebaren burutazioen muinarekin topatuko gara. Ez du bere konpromisuetatik ihes egiten: bakezalea eta adiskidetzalea den aldetik Ararteko aparta izango litzateke. Alde horretatik, esan genezake Gandhiren moduan jokatzeko duela.

Bere lan literarioa bere buruaren azalpena da, bere barrukoak disimulo haundiz ateratzeko modu bat. Baina ez du Bernardo protagonistarengan bilatu behar. Gure idazlearen singularitatea ez da begibistan ageri, izkutuan azaltzen da, lausotua azaltzen zaigu hortik eta hemendik, altxorra irakurtzen dakienarentzat gordez.

Bere prestakuntza moralak erro filosofikoak ditu (Rousseau, "gizaki naturala"). Oso idazle ikaskorra eta txukuna da. Hori dela medio, bidezkoa izango litzateke literaturaren historia bere obraren bitartez ikastea. Ene ustetan hobekien ezagutzen eta erabiltzen duen teknika eta adierazpidea ironia da (Antonio Galaren antzera). Horretan jaun eta jabe dugu Atxaga.

Lausenguak gustatzen ez zaizkionez akatsen bat ere komentatuko dut. Esaterako, bere etxean nahasmasia nagusi izan daiteke behin baino gehiagotan eta, beste batzuetan ere, bere jokabidea nahiko anarkikoa izaten da, batez ere ikusten ez dutenean (ez konfunditu desordena eta anarkia). Jokoaren menpekoea ez bada ere, noizean behin ludopatarena egiten du (ludopata katxondoa). Jolas erotikoa eta besterik gabeko koketeoa oso gustokoak ditu.

Bere jokabidea esaldi batean laburbildu beharko banu horrela egingo nuke: "nahita egiten du gustatzen zaiona eta gustatzen zaiolako".

Iñaki Gauna



Turroia !

ASTE KORAPILATSUAK igaro ondoren, hara hor Gabonak. Egun bereziak, bitxiak esango nuke... Umeen ilusioa, ikasleen oporraldi paregabea, gazteen dibertsioa, politikoen tentsioa, aiton-amonen oroitzapenak eta batez ere gurasoen hotzikara sortarazten diguten Gabon jaiak, beno, guraso askoren poltsikoak sufritzen duten hotzikara. Bakoitzari berea dakarkion urteko azken sprinta. Azken ostikada bilakatzen zaizkigu izan ere egun hauek. "Gabon bon-bon... Natibitate ase eta bete..." Eta... "Agur agur urte zaharra... joan zaitez lotara..."

Baina bitartean izaten da bai zer aipaturik. Nahiz eta urteko egunik laburrenak direla esaten diguten, goma bezala luzatzen diren egunak baitira. Batzuei bai behintzat...

- Zenbat da hori...?
- Mila eta bostehun...
- Jesus, Jose eta Maria...! Hori duk prezioa, hori...!
- Zer uste hunan bada...? Erregalatzea...?

Eskua poltsikoratu, dena arakatu, diru puskak kontatu eta ...

- Ez, ez zeukeat horrenbesterako... baina, izango duk merkeagorik ere, ezta?

- Begira, alboko hori seiehun pezetan daukan salgai...

- Ene bada! Horixe eramango diat, azken finean gure Joxeri berdin dio famatua izan ala ez izan turroia izan ezker...

Beste batzuek, ordea, marisko tartean igeri izango dira. Hauen poltsikoa gomazkoa baita, besteen izerdiz lortutako gomaz osatua, nahi adina luza daitekeena.

Eta urtero halaxe, batzuen etxeak eta poltsikoak beteak eta diru hutsez eta besteeenak ere halaxe, beteak, baina hautsez.

Eskerrak urte berria bistan daukagun...! Horrekin ezbehar guztiak konponduko dira... Izan ere eta halaxe dio kantu zaharrak: "Urte barri-barri, daukanak ez daukanari... nik ez daukat eta niri..." Ea inork eskua luzatzen duen... Olentzerok ez bada hiru Errege "Majuek"... Norbaitek. Sinesgogor naiz, daukanaren eskuetara dihoala dana ikusi baitut beti. Aldatuko al da...?

Abel Enbeita

J A T E T X E A



Kutxillera, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



«ANDREGAIK NAHI DUENEAN EZKONDUKO NAUK»

Rikardo Gz. de Durana

❑ Gasteizen gutxi dira Rikardo Gonzalez de Durana bezain ezagun diren euskaldunak. Eta, haatik, Rikardo ez da gasteiztarra. "Oreitian jaio ninduan, 1.959 abuztuaren lehenean. Leo nauk horoskopoz; irakurri egiten diat, igual, baina ez zioat kasurik egiten: lelakeria iruditzen zaidak". Oreitian jaio, Oreitian bizi, baina denbora handiena Gasteizen. "Lanean eta bestela ere bai. Harreman gehienak Gasteizen ditiat".

❑ Arkaiako du aita eta Oreitiako ama. "Gonzalez de Durana Alzola nauk ni".

❑ 1.979an hasi zen euskaraz ikasten, AEKn. Gero, Isidro Bastarrika zenarekin, Estibalzko fraide. Gainerakoan, 1981-82az gero, Hegoaldeko zein Iparraldeko baserri zenbaitetan. "Jokin Mujika ziklistaren baserrian adibidez, Mixel Berekoirgoienaren baserrian - Euskal Laborarien Batasunako buruetarikoan, eta Eñaut Etxamendi kantariarenean".

❑ Bertsolari txapelduna dugu Araban Rikardo. 1982ko kontuak dira. "Irratian entzun nitian bertsotan. Euskara ulertzeko gai ote nintzen jakin nahi nian. Loiolako Herri Irratia huen. Hasieran kantu eder bat entzun nian; gero, kantu hari beste batek erantzuten zioan... Amuriza ari zuan, beste batekin". Eta Rikardo zaletu zen. "Gasteizen euskaldun giroa sortu nahian ari gintuan, euskaldun berri eta

zaharrek. Bizkaialdeko bertsolari eskolak furi-furian zeudean eta norbaitek aipatu zian zergatik ez hemen ere". Eta 1982an bertan, Abel Enbeitarrekin hitzegin eta horri ekin zioten. Hala ere, lehenengo-lehenengo asmoa beste bat zen: "Euskal giroan murgiltzea eta ondo pasatzea, euskaraz. Euskaraz bizi, gogoko gauzak eginez".

❑ Aurreko batean Oihane Preak bota erronkari eutsi dio sail honetatik: "Ez zidatek txapela kenduko. Utzi, utziko zieat. Nahi baldin badute, datozela Oreitiara eta utziko zieat".

❑ Lorazain dugu lanbidez, euskal girorik gabe. "Lankide batzuk euskaldunak badituk baina taldeka ibiltzen garenez, batzuetan tokatzen duk euskalduna, eta besteetan ez. Giroa, eskasa". Euskal gunerik sortzeko modurik ez, nonbait. "Gure nagusiek ez ditek euskara maite eta ez zaiek ideia hori gustatzen. Kontrakoa egiten saiatzen dituk". Udalaren Lorazaintza Sailean ari da, nagusi askoren kontra. "Injenaria, lorazain nagusia, kapatazak, talde buruak, lorazainak eta lorazain laguntzaileak".

❑ Bertsotan jardun ezik, eranskailuak osatze du afizio, eta irakurtzea. "Denetarik zeukat: euskararen ingurukoak, abertzaleak -fatxaren bat ere bai, tartean-... gehienbat politikoak eta euskararen ingurukoak".



Noiz ezkondu behar duk?
Andregaiak nahi duenean...

Noizko Euskal Herria libre?
Oraindik bide luzea zegok.

Non da koxka?
Madrilek giltza zeukak baina PNVk ere traba handia egiten dik.

Askotan ibiltzen haiz Parte Zaharrean eta, hala ere, ardorik aprobatu gabe?

Aprobatu gabe, salbuespenen bat egiten baldin badiat ere.

Inoiz edo behin edatzen duk ardoa, hortaz!

Ardoa edo beste zerbait; alkoholduna.

Isidro Bastarrika zenarekin ikasi huen euskaraz garai batean. Mezatara ez hinduen zaletu...

Ez, hori ez. Saiatu, igual saiatuko zuan, baina ni bestelakoa atera nauk.

Noren asmazioa da "Oreitia-k Urretxidorra"?

Andoni Egañarena, uste diat.

Abel duk, dena den, hire aita-ponteko bertsolaritzan?

Esan liteke Abelengatik hasi ginela bertsotan, bai.

Lorazaintzak ez dik euskaraz jarduteko aukerarik eman.

Sikera, sosa egin duk: etxea jasotzen ari omen haiz Etxa-

GARNICA



Gorbea kalea 40
Tfnoa: 24 18 73

FERRETERIA ETA ETXERA KO TRESNAK

barri-Ibiñan...

Sosa ez. Lan horretan ez nauk aberastuko, lasai. Gasteizen baino merkeago erosi nian, edo prezio berean. Orain, gainera, konpondu egin behar diat.

Oreitiakoa ez baina Etxabarrri-Ibiñako Urretxidorra haugu laster...

Oraindik urte askotako konponketa lana zeukat. Oreitiatik ez nauk joango.

Noiz arte Cuerda?

Jubilatu edo hiltzen den arte. Esperantza handirik ez. Gasteiztarrek maite omen ditek eta botoa ematen ziotek, hori duk okerrera.

Euskararen kontrako girorik somatzen duk hire inguruan?

Kalean somatzen duk. Txarrena ez dituk beste horiek. Txarrena PNV duk: egin behar zukeena ez dik egin euskara bideratzeko. Azken finean, udalaren gobernua PNVk zeukak eta PNVk galerazi izan dik euskara aurreratzea. Euskararen alde egin dena herri-mugimenduek egin dute.

Udaletxean eta gainerako erakundeetan bazegok jende asko

euskararen kontura bizi dena baina egin dutena izan duk trabak ipini. Horren frogak duk trafiko seinaleak berak erdara hutsez egotea, gehienbat. Eta erakundeetatik datozen inprimaki eta paper gehienak erdara hutsez egotea. Hori, borondate kontua duk.

Bertsolari Eskola sortu zenuen. Gero, Bagare eratu zuten. Orain, GEU ere dugu...

Bertsolari Eskolak ez zian Gasteizko euskaltzale-euskaldun guztiak biltzeko asmoa; denak bildu izan balira, ongi-etorriak izango zituan denak. Zaletasun bera genuen batzuk sortu genian, geuretzat, ondo pasatzeko eta euskaldun giroan bizi ahal izateko. Gero, Bagare sortu huen, eta geroago, GEU. Biek batasun batera iritsi beharko lukete, beren nortasuna gordeaz baina batasun batera iritsiz. Nik uste nian batuko zirela.

Hiru elkarte horiez kanpoko euskaldunok nahikoa egiten al dugu?

Ez. Geuk ere ez. Guk ere, ahal dugun guztia egingo bagenu, eragin handiagoa edukiko

genikek. Udalak zer bait erdara hutsez bidaltzen digunean atzera bidali...

Euskaraz bizi liteke Gasteizen?

Ezinezkoa duk, eta independentzia lortu arte ez diat uste euskararen normalkuntza emango denik.

Zer moduzko jatuna haiz?

Ona, oso ona; sukaldari baino hobea.

Menu goxo bat, heure gustokoa:

Babarrunak, solomoa eta tartaren bat. Edateko? Ura. Azkenerrako, Jack Daniels bat.

Festazalea haiz?

Bai, euskal festak gustatzen zaizkidak. Euskara hutsezkoak, ahal baldin bada. Euskal musika, baina ez zaratsua; folk musika... Euskal giroan. Hori gutxitan izaten duk, ordea, eta Gasteizen inoiz ez eta, beraz, Gipuzkoa aldera, Bizkaira edo Nafarroara joan behar. Gutxi mugitzen nauk baina batzuetan joaten nauk.

Hirekin asmatzeko erregalia?

Erraza duk: edozein.

Igande goizeko plana?

Ohean hamabiak arte, jeiki eta bazkaldu.

Hortaz, zein izan duk larunbata iluntzeko plana?

Parranda, dudarik gabe, herri batean edo Gasteizen bertan.

Nolako parrandak egiten dituk?

Alkoholik gabekoak, baina nahiko onak, uste diat nik.

Irakurzale omen haiz. Gomendioen bat?

Bertso liburuetarik, "Odolaren mintzoa". Beste bat, "Azken elurra" Etxamendirena. Iparaldeko drama bat islatzen

duk bertan; asko gustatu zitzaidan. "Otto Pette" ere bai, Etxaideren edozein liburu, Joan Mari Irigoienek, "Poliedroaren hostoak".

Oporrak non eta zertan?

Edonon, gehienbat, Oreitian edo Euskal Herrian, irakurtzen, paseoan, baserrian lanean, pegatinak sailkatzen...

Kirolzalea?

Ez, ez diat batere egiten. Ikusi ere ez. Futbola eta ez zaizkidak batere gustatzen.

Famatu adiskideren baten izena?

Serapio Lz. de Ortueta.

GEU-Gasteiz ala Udalaren Gazeta?

GEU-Gasteiz, nahiz eta aurreko ale batekin haserre nagoen. Hemengo Ertzaintzaren buruari elkar hizketa egin izana... Estatuko segurtasun indarretan sartzen duk Guardia Zibila eta Polizia Nazionalarekin batera eta jende horrekin ez diat ezer jakin nahi. Mindu egin naik GEU-Gasteizkoek elkar hizketa egin izana.

Zer opa diok Urte berriari?

Aspaldi kezka handi bat daukat barrun nere bihotzean ta ez nuke nahi gelditu dedin behin betirako hutsean zai dago ama zai dago aita ta presoak espetxean guztiak libre behar ditugu bakoitza bere etxean.

Urte zaharra gogorra zen ta berria bedi biguna ea guztion barnean duen behar duen oihartzuna eta hobea izan dedila hortako eginez jarduna ia ekartzen duen guztiok nahi dugun askatasuna.

Miel Anjel Elustondo



MIKO
izozkiak



GUREA
jatetxea


Konstituzio Enparantza, 10
Telefona: 24 59 33

Bidea eman euskarari!



g

asteizko kale askotan gaztelania hutsez edota euskara kaxkarrean idatzitako bide seinale ugari ikus daitezke. Iñigo Kastresanak bere kasa egindako ahaleginari esker egoera zertxobait hobetu da.



bide seinaleak euskalduntzeko ahaleginak bere fruituak eman ditu...

EUSKARAREN Erabilpena Arauzko-tzeko Oinarrizko 10/1982 Legeak, 10. atalean, horrela dio bere 2. eta 3. puntuetan:

2. "Kale-bidetango seinale eta iragarpenak bi hizkuntzetan egongo dira, (...)"
3. "Izen hauek oso ezberdinak izanez gero, bide-seinaleei buruzkoetarako, biak ofizialtzat joko dira".

Zentzu berean, Espainiako Kostitutzioak eta Autonomi Estatutuak iragarpen ofizial guztien izaera elebiduna legalki onesten dute. Errealitatea, ordea, ez dator teoriarekin bat. Oraindik, Gasteizko kale askotan gaztelania hutsez edota euskara kaxkarre-

an idatzitako bide seinale ugari ikus daitezke; eta azkenengo hilabeteetan egoera zertxobait hobetu bada, Iñigo Kastresanak bere kasa egindako ahaleginari esker izan da bereziki.

Iragan martxoan ekin zion Iñigok bide-seinaleak euskaraz zein gaztelaniaz agerzitezen erreibindikatzeari eta bederatzi hilabete hauetan 1.000tik gora euskaratu direla azaltzen du.

Lurra eta zerua irauli

Duela hamasei urte, EHEeko taldekide zela, espraiez salatu zuen trafiko seinaleak gaztelania hutsean agertzea. Udaltzain bati

“seinaleena tanta txiki bat besterik ez da”

euskaraz besterik mintzatu nahi ez izanagatik ere atxilotua izan zen.

Kanpoan hainbat denbora eman eta gero, orain dela hiru urte Iñigo Kastresana Gasteiza itzuli zen eta, ordurako Euskararen Erabilpenerako Legea hamar urtez indarrean egon bazen ere, ia seinale guztiak gaztelara hutsean aurkitzen zirela ikusi zuen. "Legea euskaldunon alde zegoen baina praktika ez. Horrek nire onetik atera ninduen. Adarjotze handiagorik ezin zen

Ardatz

itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ


Ederki

ZURE ARGAZKIAK ORDU BETEAN
Erreportaiak: ezteiak, komunioak, bataioak
Estudioko argazkiak
Bideo industriala
Olagibel, 64 • Telefonoa: 27 50 85

Gorka Oribe:

“Ertzaintzako arduradunek neurriak hartu behar dituzte gehiegikeria hauekin amaitu nahi bada”

ertzaintzaren hedapenarekin batera, jatorri desberdineko zenbait lagun bildu eta Gasteiz Herria izeneko hiritar ekimena abian jarri zuten irailean, “hiritarren eskubideak eta askatasuna bermatzeko asmoz”. Talde honek, abenduaren 15ean prentsaurreko bat eskaini zuen eta bertan Ertzaintzak lehenengo hilabeteetan egindako ekintzen balantzea azaldu zuten. Gorka Oribe, Gasteiz Herriako partaidearekin izandako elkarrizketa dakargu orrialde hauetara.



Zer da “Gasteiz Herria” eta zertarako sortu zen?

Gasteiz Herria herri ekimen bat da. Irailaren hasieran Ertzaintza Gasteizen hedatuko zela eta, zenbait lagun elkartu egin ginen kezkatuta geundelako Ertzaintzak beste lekutan izandako jokabidea ikusita. Gasteizen ere antzeko zerbait gerta zitekeela iruditzen zitzaigun eta herri ekimen bat abian jartzea erabaki genuen herritarren eskubideak ahal dugun neurrian bermatzeko.

Hiritar bezala ditugun eskubideak zaintzea da gure helburu nagusia.

Nork osatzen duzue herri ekimen hau?

Lagun eta talde ugari biltzen ditu herri ekimen honek. Hasieratik saiatu ginen talde zabal bat osatzen. Hori dela eta, jende

“kezkagarria izan da Ertzaintzak erakutsi duen jarrera”

askorengana jo genuen eta ekimen honetan parte hartzeko eskatu genien. Jasotako erantzuna oso polita izan zen: auzo elkarte-etako jendea, langileak, emakumeen aldeko borrokan dihardutenak, euskaltzaleak, insumituak, Salhaketa, AAB...

Zein izan da orain arte egin duzuen lana?

Gehienbat egin duguna hauxe izan da: istiluetan kaltetuak gertatu direnengana joan eta gertatukoaren inguruan beren bert-

IRUSTA
poteo eta pintxoak

ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

HEGOALDE
euskaltegia



Florida kalea
58 behea

tfnoa 28 41 96

01005
GASTEIZ

sioa emateko eskatu diegu, jasandako gehiegikeriak zehaztu eta hobeto ezagutzeko asmoz. Horrez gain, zenbait hedabideetara iritzi artikulak bidali ditugu ekintza jakin batzuk salatzeko.

Bestalde, biltzeko lekua eta telefono bat lortzen saiatu gara. Oraingoan, auzo elkarte bateko aretoa erabiltzen dugu eta telefonoa ere badugu.

Zein izango da telefono horren funtzioa?

Inork uste badu inoren eskubideak bor txatuak izan direla edo salaketaren bat egin nahi badu, gu prest egongo gara laguntza emateko. Edonork gurekin harremanetan jarri nahi badu 27 27 97 telefono zenbakira hotsegitea besterik ez du egin behar.

Ertzaintza Gasteiza etorri zenetik lau hilabete igaro dira dagoeneko. Denbora horretan zenbait istilu ere gertatu dira, zein da hedapenari buruz egiten duzuen balorazioa?

Nahiko kezkatuta gaude hainbeste istilu ikusita. Baina, batez ere, kezagarria Ertzaintzak erakutsi duen jarrera izan da; harrokeria haundiz jokatzeko dute. Lehenengo egunean sekulakoak egin zituzten. Alde zaharrean egindako karga batean, neska bati oso hurbiletik gomazko pilota bat bota zioten eta ondorioz konortea galdu zuen. Ospitalera eraman behar izan zuten neska hura.

Guk ekintza hura salatu genuen. Eta gure ustez, Ertzaintzak neurriak hartu beharko lituzke horrelakoak berriz gerta ez daitezkeen. Eta gertatuz gero, ikerketa bat zabaldu eta bere buruari kritika bat egin behar lioke.

Hori egin beharrean, ordea, beraiek gertakizunen beste bertsio bat ematen dute eta ukatu egiten dute dena. Bertan egon ez

ziren hiritarrak nahasten saiatzen dira baina jende askok ikusi zuen han gertatutakoa. Horrelako ebidentzia bat ukatzen badute, zer ez dute egingo beste hainbat kasutan? Kezkagarria da, halere, ez dela ikusten zuzenki jokatzeko inolako intentziorik.

Abenduan egindako prentsaurrekoan dossier bat aurkeztu zenuten. Zer

“oso denbora gutxian gertaera larriak jazo dira”



agertzen da dossier horretan?

Hilabete hauetan izandako istiluen nondik norakoak azaltzen ditugu. Oso denbora gutxian gertaera larriak jazo dira eta Gasteizko auzo elkarte eta taldeei dossier hau banatu diegu gauzak nola izan diren azalduz. Gasteizko ertzainen buruarekin ere hitzegin dugu. Ertzaintzako arduradunek erantzun bat eman behar dute eta neurriak hartu behar dituzte gehiegikeria hauekin amaitu nahi bada.

Gasteiz Herriak-en aurkezpen egunean, zuen helburua hiritarren eskubide eta askatasunen defentsa egitea zela adierazi zenuten. Zehazki zer adierazi nahi zenuten horrekin?

Jendeak eskubide batzuk dituela eta defendatu behar ditugula adierazi nahi dugu, inork ez baitu horiek zapaltzeko eskubiderik. Garrantzitsua da jabetzea gure eskubideen alde borrokatu behar dugula eta ez dugula etsituta geratu behar.

Xabier Zabaleta

TXUSTIA
TABERNA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**
Mateo Moraza kalea
GASTEIZ

EDAN • JANTEGIA

Oleaga

ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

Karta betiko eta oraingo platerekin

Eguneroko Menua: 1000 pzt
Betiko kazuelatxoak

Eguzki: artxibo ekologiko baten gabezia betetzen



ekologiaren inguruko gairen bat jorratu nahi denean, Unibertsitatean ikasten ari ez den edonork liburutegi publikoetara jotzen du lehendabizi. Hango informazioa aski ez zaionean, ordea, Diputazioko Ingurugiro Sailera abiatzen da eta han ere ezer ez dutela jakiterakoan Udaletxera doa. Berriro ere esku hutsik atera eta gero, askori Eguzkirengana joatea bururatzen zaie. Bertan badago barneartxibo bat, baina hau txikiegia da gero eta handiago den ekologiarekiko interesari erantzun egoki bat eman ahal izateko.



IKASLE ETA bestelako zaletuen eskari ugariak eraginda, Eguzki artxibo ekologiko bat gauzatzen ari da Hego Euskal Herrian.

Lau herrialdeetako egoitza bakoitza arlo batean berezitu da. Horrela, Arabak gune natural eta nekazal politikaren inguruko informazioa eskaintzen du; Bizkaiak kutsadura eta hondakinak ditu gai nagusitzat; Nafarroan ura da ardatz printzipala eta Gipuzkoan, berriz, arrantza eta itsasoa. Hala ere, abian dagoen informatizazio lanari esker, edozein egoitzatik besteetan aurkitzen den informazioa berehala eskuratu ahal izango da. Gainera, eremu zehatz hauetaz aparte, eskualde bakoitzean badaude hainbat gai ezberdini buruzko liburuxka, aldizkari eta txosten dibulgagarriak ere.

Ekologia modan

Azkenengo urteetan gero eta ikasle gehiago hurbiltzen dira Eguzkiren egoi-tzara ekologiari buruzko materiala eske. Alde batetik, dagoeneko ekologiaren munduan iaioak direnak joaten dira eta, oro har, haultzak badago eskaintza egokia. Bestetik, institutu edo bestelako ikastetxetako



GASTEIZKO HERRIKO TABERNAK

OLARIZU

Jose Uruñuela
Tfnoa: 13 49 18
Auzoko pintxorik onenak

ALDE ZAHARRA

S. Fco Xabier Kantoia
Tfnoa: 28 33 05
Poteo eta giro ona

ERDIALDEA

Ramiro Maeztu 6
23 31 92
Eguneko menua



ARTXIBOA EUSKALDUNDU

ARTXIBOAREN GAUZATZE eta hedatze prozesu honetan Eguzkik badu beste kezka handi bat, euskararena, hain zuzen ere. Dokumentu guztiak euskaraz zein gaztelaniaz eskaintzea da helburua eta horretarako itzulpen lana izugarria egin behar da, argitarapen gehienak erdaraz baitaude (gaztelaniaz, ingelesez, frantsezez). Zeregin honetan zalantza ugariei egin behar izaten diote aurre. "Alde batetik, erdarakadak erabat baztertu nahi ditugu, baina bestetik ez ditugu hitz teknikoegiak erabili nahi, hauek ulergaitzak lirakeelako askorentzat. Eta hau guztia zehaztasunik galdu gabe egitea ez da batere erraza.

Arabako egoitzan, gune natural eta nekazal politikaren inguruko informazioa eskaintzen da

ikasleak daude. Hauek klaserako lanak idazteko behar dute informazioa. Hortxe dago gakoa: orokorrak eta ulerterrazak diren txosten eta liburuxkak idaztea eta argitaratzea, eta gainera kontuan izanda, maiatza bezalako hilabete batean, 150 ikasle inguru joan daitezkeela artxibora beraien lanak burutzeko datuen bila.

Gasteizko Eguzkin lanean dagoen Albertok dioenez atsegin osoz ari dira Kutxilleriako egoitza birmoldatzen artxiboaren beharrei irtenbidea emateko baina, une berean, kexati agertzen da instituzioak utzitako hutsunea beraiek bete behar dutelako inolako laguntza publikorik jaso gabe. "Zehatzago izateko, iaz Eusko Jaur-laritzak dirulaguntza txiki bat eman zigun zeregin honetarako baina aurten ez digute ezer eman, ezta aldizkariaren harpidetzarako edota jendeak hartzen dituen eskupapere-

tarako ere. Are gehiago, instituzioek onartutako arautegiak edo argitaratutako ikerketak ez dizkigute bidaltzen". Arazoa, hala ere, ez da dirua bakarrik, ez dagokien betebeharrak bati aurre egin behar izatea ere problematikoa da. "Hau, berez, ez da gure lana. Ez dugu ingurugiro hezkuntzarako talde bilakatu nahi. Gure zeregina naturaren aurkako erasoak gelditzen saiatzea da. Aktibitate horretan datza gure izaeraren arrazoia".

Dena den, Eguzkik ekologiar buruzko informazioaren behar horri irteera eman nahi dio eta horretarako egoitza egokitzeaz gain artxiboaren erabilera arautu nahi du ordutegi bat finkatuz eta interesatuei harrera egiteko elkartekide pare bat izendatuz.

gure zeregina naturaren aurkako erasoak gelditzen saiatzea da



Edu López de Luzuriaga

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



PINTORERIA, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ

Xabier

taberna

musika ona
eta giro ezin
hobea

Kutxileria, 23



HegoAmerikako
jantziarik ederrenak

PINTORERIA kalea • S. Franciscoren
kantoiairen ertzean Tfnoa: 25 03 52

JAVIER DIAZ NOCIREN EUSKAL PRENTSARI BURUZKO LIBURU ARGITARATU BERRIA

Euskal kazetaritzaren hastapenak aztergai

Jabi Diaz Nozi EHuko irakasleak Gerra Zibila arte garatutako euskal prentsaren historia aztertzen duen lana argiratu berri du. Euskal prentsa Lizardi, Basarri, Lauaxeta eta Kirikiñoren mailako idazleen eskutik eta ARGIA astekariaren itzalpean eraiki zen eta horren azterketak gaur egungoa hobeto ulertzen laguntzen digu.



Euskal kazetalgintza polarizazio politikoaren eraginez sortu zen eta politikoki oso markatuta

Euskal kazetalgintza polarizazio politikoaren eraginez sortu zen

HISTORIA EZAGUTZEAK okerrak ez errepikatzeko balio duela egia bada, *Euskal prentsaren sorrera eta garapena*. 1834-1939 liburuak euskal prentsan ari direnzentzat tresna baliagarria izan behar luke. Jabi Diaz Nozik argitaratu berri duen lanak euskal prentsaren lehenengo mendea aztertzen du: Donostiako El Correo del Norte egunkarian 1834. urtean lehenengo euskarazko artikulua agertzen direnetik Euskal Herrian Gerra Zibila bukatu zen arte, 1937. urterarte, hain zuzen.

egon da sorreratik gaur egun arte. Bestetik bertako kazetalgintzaren ezaugarriak nagusiena euskaraz izatea izan da. Hau da, garai eta lekuarekin lotura estua izan du beti: "Inguruan zeukan prentsaren oso antzekoa zen eta da. Euskaldunon Egunkaria adibidez, egunkari normala da, euskaraz, baina inguruan ditugun besteak bezalakoa. Hori bai, euskaraz egiteak sortzen dituen mugak, bai zabalpen aldetik baita ekonomia arloan ere, ezin dira ahaztu".

Kazetal ereduari dagokionez, eta komunikabideak politikoki oso markatuta zaudela kontutan hartuta, gehien bat iritzizko kazetalgintza landu zela esan behar da. Jabi Diaz Nozik azaldutakoaren arabera, Lehen Gerra Mundiala amaitu arte ez zen kazetaritza informatiboa garatu. "Salbuespena Ipar Ameriketako euskal prentsa da, han eredu informatiboa lehenago sortu



IZARRA TABERNA - JATETXEA

★
IZARRA
TABERNA
JATETXEA

BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73

URTE BERRI ON

urtarrilaren 8an berririo irekiko dugu

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK

zurbeltz

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

baitzen”.

Euskara ereduak

Euskarari dagokionez lau eredu nagusi ikusi ditu irakasle gasteztarrak garai hartako prentsa idatzian: Beterri aldeko gipuzkera, lapurtera osotua, hegoaldeko nafarrera eta bizkaiera (garbizalea alde batetik eta bizkaiera “ulergarriagoa” bestetik). Euskalkiak alde batera utzita XX. mendeko euskal kazetalgintza maila handikoa zela ezin da ukatu. Egun klasikotzat jotzen diren bertsolari eta idazle asko aurkitu ditu Diaz Nozik bere ikerlana burutzerakoan eta hauen ondoan Euskal Herriko politika eta ekonomia munduan ere eragin handia izan duten pertsonak: Basarri, Kirikiño, Lauaxeta, Lizardi, Orixe, Kizkitza eta Arizmendiarieta beraren eskutik eman zituen lehenengo urratsak euskarazko prentsak.

Kalitatea aipatuta kantitateaz ere hitz egin behar da eta ezusteko atsegina hartzeko aukera izan du Nozik: “irakurle kopuruari buruzko datu asko ez badaude ere adibide pare bat jar daitezke: Ipar Euskalerriko Eskualduna aldizkaria 8.000 erosle izatera iritsi zen; Hegoaldean



Argiak 10.000 ale saltzen zituen astero, irakurleak askoz gehiago ziren arren. Hori unerik onenean, noski”.

Ohitura onak

Euskal Herrian Estatuan baino dexente gehiago irakurtzen dela esan ohi da, eta garai haietan ere horrela zen. Gaur egun

gizartearen egoera aipatzen da arrazoi moduan. “Euskal Herrian alfabetatze maila altua egon da beti, Estatuarekin alderatuz bai behintzat. Euskaraz alfabetatutakoak ez ziren horrenbeste baina apurka gehitzen joan ziren. Gainera apai-zek heziketaren kontrola zeukaten leku askotan eta beraiek ziren jendearengana iristeko euskara erabiltzen zutenak. Puntu honetan ere, Argiak egindako lan izugarria aipatu behar da, honek ohitura sortzen lagundu zuelako eta gaur ere somatzen den irakurketa maila altua goratu zuelako”.

Lehenengo pausu haiek aztertuta Nozi gaurkoa hobeto ulertzeko bidean dagoela suposatzen da. Goia jo ote du gaur egungo euskal kazetalgintzak? “Espero dezagun ezetz! Egunero euskara hutsezko egunkaria irakurri ahal izatea oso garrantzitsua da baina astelehenetan ere erosi ahal izatea asetu gabeko beharra da. Bestetik Egunkaria oso ondo dago baina besteren bat egoteko aukera izateak normalizazio bidean gaudela adieraziko luke. Guzti hau lortzeko gizartea elebidundu behar da eta nik lortuko dugula uste dut”.

kide
APAINDURA

Cercas Bajas, 27
Tfnoa: 14 41 95
GASTEIZ

mostrongotxoak:

Beethoven gazteak



euskaldunok betidanik, eta batez ere gasteiztarrok, musikazale amorratuak izan gara; adibide gisa Guridi maisua aipa dezakegu. Eta urte berri bat musikarekin hastea izugarria da, baita mostrongoentzat ere.

Aranzabela ikastolako Beethoven berriek abestu zigutena jakin nahi baduzue, belarriak prestatu honako doinuei.



Gaur egun musika talde, estilo, abeslari, .. ezberdinak gure gizartearen asko dira. Egoera anizkor honetan, zer nolako musika moeta da umeentzat gustokoena? Mostrongotxoek, aukera izatekotan, zein eratako musika taldea sortuko lukete? Rock radikala, opera, jazz-a, klasikoa, trikitixa edo zarzuelaren artean zer nahiago lukete?

Ume talde bat egingo nuke, umeak familiako interesgarrienak baikara. Doinua nire ahizpak asmatuko luke eta taldearen izena "Txiki-kluba" izango litzateke. Erabilitako jantziak oso dotoreak izango lirateke: takoidun oinetakoak, galtza motzak, eta ezin gara ileapainketaz ahaztu. Musika tresnei dagokionez nik gehien atsegin ditudanak edukiko genituzke taldean: danborra, marakak, txirula eta horrelako tresna zaratsatuak.

Iratxe, 9 urte

Niretzat jazz talde bat osatzea primerakoa izango litzateke. Taldeak "Traks" izena izango luke, non arropa eta tresneri arruntak erabiliko genituzke: biolina, fagota, tronpa, danborra, trikitixa, ... eta traje beltzak larruzko oinetakoekin. Ni neu liderra izango nintzateke, noski. Ingeleraz abestuko genuke eta letrak idazteko ingeles bat kontratatuko genuke.

Urko, 10 urte

Rock talde bat eratzea gustatuko litzaidake, "Hertzainak" eta horiek bezalakoa. Ez dakit zein izen

jarriko niokeen, baina oso polita izango litzateke.

Maitane, 10 urte

Musika talde batekoa izango banintz, denetarik abestuko nuke. Rock-a jotzerakoan botak, bakeroak eta taldearen izena grabatuta duen kamiseta bat jantziko nituzke. Opera jotzerakoan era arrunt batean jantziko nintzateke. Nire lau lagun onenekin "Denetarik" taldea osatuko nuke eta eskenatoki handi batean kolorezko argiekin batera dantzatuko genuke.

Estitxu, 9 urte

ditare

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ



MIKEL
DELIKA

**BEIRATE
ESTUDIOA**

Txikita kalea, 1
Tf: (945) 14 64 10
GASTEIZ



Taldea osatzeko lagun martxosoenak bakarrik hartuko nituzke; besteak ez. Bereziki arropa bakeroa erabiliko genuke, txupa beltza eta niki grisekin batera. Dena borobiltzeko ilea orlegi-fosforitoz tindatuko nuke. Taldearen izena "Udaberri Loretsua" izango litzateke.

Asier, 9 urte

"Astakilen etorkera" izeneko taldean musika arin eta alaia egingo genuke. Eskenatokian astakilen zangoak, arropetan marrazkiak, buztanak eta belarri batzuk erabiliko genituzke. Taldeko partaideak nire lehengusuak, lagunak, amona eta ni izango ginateke.

Ana, 10 urte

"Patxanga"n denetarik abestuko genuke, erderaz nahiz euskaraz. Musika tresna ugari izango genituzke. Besteak beste, tronpa, txirula, triangelua, fagota, oboea, bibolina, biola, kontrabaxua, biolontzelo, "kriskitina" eta bateria.

Iraia, 10 urte

Gure "Super Tili" izeneko rock taldean arropa modernoak eta euskarazko abestiak izango lirateke nagusi. Partaideek, nire aita eta ni tartean, eraztunak eta medaloiak jarriko genituzke. Letrez nire arreba arduratuko litzateke eta nire lagunak musika idatziko lukete. Nire familiakoak taldeko partaide izango lirateke ere. Hori bai, nahi luketenak bakarrik.

Iker, 10 urte

Lorea Zurimendi



"Errokero mutanteak" rock taldearen partaide izango nintzateke eta taldean jantzi arraro-arraroak nagusi izango lirateke. Eraztunak, txapak, lepokoak, ispiluak eta linternak erabiliko genituzke. Bospasei kideko talde honetan izarra neu izango nintzateke dudarik gabe.

Alberto, 10 urte

Taldearen izena "Rompe huevos" litzateke eta arropa punkiak erabiliko genituzke. Gure itxura hauxe: buruan marra orlegi bat, zapatila gorri-orlegiak alboetan marratxo hori batekin eta fraka eta txaleko beltzak soinean.

Ortzi, 10 urte

Umeak zaintzen ditugu

GAUEZ

GOIZEZ

Beatriz 22 61 18
Nekane 26 91 53
Eduardo 14 21 99
Leire 27 32 81
Lorena 27 10 13
Ainara 23 38 28
Naiara 24 04 42

Esther 27 84 57
Idoia 24 47 79
Lorena 27 10 13
Montse 26 78 12
Ainara 23 38 28
Txaro 28 08 85
Arrate 25 64 01 (ostegun eta ostiralean)



Oihana 25 30 35
Aintzane 27 09 64
Iratxe 24 51 81
Lorena 27 10 13
Patrizia 27 78 19
Iratxe 24 51 81
Ainara 23 38 28
Leire 23 12 23

ASTEBURU AN

Olatz 25 61 20
Montse 26 78 12
Arrate 25 64 01
Elena 14 37 28
Leire 23 12 23
Jose Angel 27 62 41
Saida 26 58 05
Idoia 24 47 79
Belen 13 65 10
Monica 13 86 40
Itziar 13 86 21
Maria Jesus 13 54 35



ITZULKA



Diegu Martinez de Alava, 7 3. esk
Tfnoa. 27 44 26
01004 GASTEIZ

JANTZI ETA
OPARIAK



Kutxilleria, 40
Tfnoa: 26 07 10
GASTEIZ

Tu Invernadero
Zure lore sortak

ALDABE 6 BEHEA

tfnoa: 945 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

Sansomendi: Gasteiztik gero eta hurbilago

Urtebete baino gehiago eman dugu atal honetan Gasteizko auzoak ezagutzen. Orain, orduan hasitako ibilbidea bukatu egin behar dugu eta hirian barrena egindako txango luze hau amaitzeko Sansomendira joan gara. Auzo honek dituen zenbait berezitasunek bultzatu gaituzte bertara hurbiltzera: gasteiztar askorentzat auzo ezezaguna da. Auzo honen izena aditu orduko, askok ijitoen kontua edo Guardia Zibilaren koartela baino ez dizute aipatuko; baina, badago gauza gehiagorik ere. Izan ere, Sansomendi, hiriko iparraldean kokaturik, azken urteotan azkar haunditzen ari den auzoa baita.



1980. URTEAN lau eraikuntza besterik ez zeuden eta Udaleko Hirigintza Sailak hiria zabaltzeko eremu ezin hobea ikusi zuen bertan. Pentsatu eta egin. Denon ustez, bizitzera joateko hura leku zoragarria omen zen eta abiada bizian etxeak eraikitzen hasi ziren. Baina, egun batetik bestera, kontu batek jendearen iritzia aldarazi zuen: inguru hartan bizi ziren ijito familia batzuk pisu berrietara (etxe sozialak) joango ziren. Orduraz geroztik, Sansomendiren irudia guztiz kaskarra izan da, ijitoak dauden lekun istiluak sortuko diren ustea oso errotua baitago oraindik gure artean. Denborarekin, hala ere, badirudi irudi txar hori piskanaka aldatzen joan dela. Hori guztia frogatzeko asmoz, aurriritzi guztiak alde batera utzi eta auzoan buelta bat egitea erabaki dugu..

Lehenik, Blas Lopez kalera abiatu gara, hau baita jendeak gehien ezagutzen duen kalea. Leku tristea da, giroan nabaritzen da hor bizi den jendea ez dela aberatsa, baina istilurik ez dago. Jendea lasai bizi da: bai ijitoak baita paioak ere. Hori bai, Udalak leku hau ez du hirian dauden beste kaleak adina zaintzen, zergaitik ote?

Auzoa zeharkatzen jarraitzen dugu. Bere bi kale nagusiak, Sansomendi eta Paula Montal dira. Bi kale hauetan daude denda gehienak eta ikastetxea ondo-ondoan dagoenez, jendez beteta daude. Beste gauza berezirik ez dugu ikusi eta gure ibilbidean aurrera egin dugu.

Peru 8
22 60 50

Jose Mardones 8
26 35 40

Arana 30
25 24 00



Euskal Herria
jatorrizko bertsioan!

anima
zaiter

æekⁿ



e
g
u
n
e
k
o
m
e
n
u
a

Goardia Zibilaren koartel ondok pasatzerakoan, ohartu gara ez dela jende asko gerturatzeko ingurura. Dena den, badirudi ohituta daudela eraikuntza berezi hori auzoan ikusten. Koarteletik oso hurbil auzoko kirolgunea aurkitu dugu eta, auzo osoan bezala, hemen ere, eraikuntza-lanetan ari dira. Udaleko Kirol Saileko arduradunek kiroldegia haunditzeko erabakia hartu zuten eta igerileku estaliak eta guzti eraikiko dituzte. Honako hau gutxi balitz, aterperik gabeko beste instalazioak ere hobetzen ari dira: futbol zelaiak, rugby zelaia eta abar. Dударik gabe, hemendik hilabete batzuetara Sansomendikoa oso kirolgune garrantzitsua izango da.

Aurrerago jarraitu eta konturatu gara auzoak laster auzokide berriak izango dituela, etxe berri asko egiten ari baitira. Gauden lekutik, Telefonikak daukan zentralita eta Eusko Jaurlaritzak ikusi ditzakegu.

Buelta eman eta auzoko beste alderantz abiatu gara ondoren, Ali herria eta Ali-Gobeo induslaldearekin topo egin dugun arte. Ibilbide honetan Sansomendikoa kale zabalak eta baita parke eta umeentzako gune ugariak ere ikusi ditugu.

Eta ezer gutxi gehiago: auzo lasaia, jendeak uste duen baino lasaia, Gasteizen dauden beste auzo askoren antzekoa ikusi dugu. Beraz, entzuten diren zurrumilo horiek guztiak ez dira horrenbesteko. Guk auzo honetan bueltatxo bat egitera gonbidatzen zaitugu, zuk zeuk azter dezazun auzoaren benetako egoera, ziuraski harrituta geratuko zara.

Gao Lacho drom

Izen hori du ijitoek orain dela urte asko daukaten elkarteak. Ijitoen mugimendua demokrazia ailegatu baino lehen hasi zen Eliza eta Caritasen laguntzarekin. 80. hamarkadan, Estatuko beste hainbat leku-

tan bezala, Gasteizen zeuden ijitoak elkarteetan parte hartzen hasi ziren, eta 1982. urtean Gao lacho Drom (Bide Oheko Herria) elkarteak osatu zuten. Izen hau lehen bizi ziren aterpetxetik dator eta beren filosofia adierazten du, bidea egiten ari den herriarena, alegia..

Aldaketa ugari egon dira elkarteak sortu zenetik. Txabolak utzi eta pisuetara joan dira bizitzera. Aldaketa hau, Bartolome Jimenez elkartearen presidentek esan digunez "oso aldaketa onuragarria izan zen, baina baita gogorra ere, guk gure kasa, askatasun haundiagoz, pisuetako itxituretatik kanpo bizitzea nahiago baitugu".

Hala ere, bidea ez da erraza izan, hasieran jende askok ez zuen ijitoen ondoan

“ijituok, izaera berezia dugun herria izanik, ulertzen dugu herri batek bere hizkuntza defendatu behar duela”



bizi nahi eta, baina poliki-poliki auzoan gero eta integratuagoak daude. "Beti izango da norbait gu bere ondoan egotea gustoko ez duena, baina ulertu behar dugu bi kultura desberdin garelako eta elkarrekin bizi ahal garelako". Bera pozik agertzen zaigu: "komikabideetan ez dira istiluak sortu dituztelako ijitoa asko agertzen eta horrek zerbait frogatzen du".

Elkartean lan asko egiten da: ijitoei aholkuak eman, tailerrak antolatu, mota askotako ekintzak eta abar. Lan horrek guztiak badu eraginik. Egun, ume gehienak ikasten ari dira, "eta ikastetxe arruntetan" azpimarratzen digu ijitoen elkartearen buruak..

Gaur egun 2.000 ijito inguru bizi dira Gasteizen, eta bere presidentearen iritziz, "gure egoera beste hirietakoa baino hobea da", hala ere, toki guztietan oraindik jende arrazista asko dagoela uste du. Auzoa, oro har, ondo ikusten dute, eroso eta polita delako bizitzeko. Dena den bere kexak ere agertu dizkigute: "Hasieran Gasteizerako garraio gutxi zeuden eta denborarekin hori pixkat hobetu egin da. Arazorik larrienak, ordea, lokalak direla eta, Udalarekin dauzkagu. Jendea hona etortzen da eta guri lekuri gabe uzten gaituzte". Beste kexa bat ere azaldu digu: "kotxeak kaleetan abiada haundiz pasatzen dira eta ez dago hauek mantsoago ibilarazteko inolako trabarik errepideetan".

Euskarari buruz duten iritzia ere jakin nahi izan genuen, eta hara zer erantzun zigun Bartolome Jimenezek tente jarrita. "Guk, izaera berezia dugun herria izanik, ulertzen dugu herri batek bere hizkuntza defendatu behar duela, baina inori inposatu barik. Nik dagoeneko esan diet nire seme-alabeei euskara ikasi beharko dutela".

David Alvez



kafetegia
taberna
ALDAPA
SAN VICENTE
aldapa
GASTEIZ



giro atsegina eta lasaia

espezialitatea: etxeko pintxoak

1993ko txapelduna • 1994ko azpitxapelduna

ERRIOXAKO ARDORIK HOBERENAK EZAGUTZEKO AUKERA

ARKA 2 / DATO 27 • GASTEIZ

Mikel Barcena

Azkarrena elur gainean



ia ohartu gabe negu gorrian betebetan murgilduta gaude eta dagoeneko lehenbiziko elurteek ere bisitatu gaituzte. Negua eta elurra dira, hain zuzen, ezinbesteko bi osagaiak gure gaurko platera, eskia alegia, atontzeko. Plater hori apaintzeko, hala ere, saltsa behar genuen eta baita aurkitu ere. Plateraren izena: Mikel Barcena eskialari gasteiztarra.

ditu. Bera zen, zalantza izpirik gabe, behar genuen elkarriketatua.



HILEKO KIROLETAKO gaia erabakita genuen. Ideiak buruan, ordenagailua eta grabagailua prest, maketatzailerak idatzita-koaren zain... Baina,... gelditu hori kazetari bekatari hori! Ezin aurrera egin protagonista barik. Eta egia da, ez dut txapeldunik ezagutzen. Aldez aurretik, beraz, lan zaila zirudien: eskiatzailea, txapelduna eta gainera arabarra behar genuen. Ez dago horrelakorik! pentsatu nen lehen unean; baina oker nenbilen. Izan ere, badago, bai, gure artean horrelakorik ere! Mikel Barcena du izena, gasteiztarra da eta 24 urte

Mikel txikitatik ibili izan da elur gaine-an, eskiatzeko ohitura aitarengandik baita-torkio. Inor gutxi eskiatzaile zenean, Mikelen aitona etxea eraiki zuen Candanchun, eta familia osoa astebururo joa-ten zen Pirineotara. Orduan hasi zen sortzen gure txapelduna.

Gauzak honela, Mikelek berehala ezagu-tu zuen arrakasta: Estatuko txapelketak, selekzioa... Gasteiztarrek horrela gogorat-zen du: "Haur-lehiaketetan txapela erraz eskuratzen nuen. Zazpi aldiz Espainiako txapelduna izan nintzen, eta horren ondo-

“**Gurasoek ikasteko esaten dizute, baina eskiak egun osoa eskatzen du**”

rioz, selekziora joateko deitu ninduten”. Hala eta guztiz ere, gauzak asko aldatu ziren haurra gazte egin zenean. “Gaztetan lehia oso gogorra bihurtzen da. Hamabost urte daukazunean zure aurkariak hama-zazpi dituzte. Hori jauzi haundia da eta ez da batere erraza!”

★ *jo ta ke*
TXAPELARRI
TABERNA
kutxilleria 83

*arimo ederrak
aire zabalean*
la calle
taberna
Dultzaina, 10

GASTEIZ
PIPERMINA
DENDÆ
*arropa
eta
osagarriak*

KUTXI, 81

Eskia eta aberatsak

Eskia ume aberatsen kirola dela askotan esan ohi da. Mikel Barcenaren itxura apala ikusirik auzi horren inguruan galdetu nahi izan diogu. Bere hitzetan, botikan bezalaxe, horretan ere denetarik dago. Alabaina, "egia da pijoen kirola dela. Kolorez beteriko zamarrak, 'Danone' gorputzak... Hitz bitan: modan dago. 'Frantziara noa eskia-tzera asteburu honetan' esaldi ospetsua guztiok ezagutzen dugu".

Eskiatzaile honen kirol bizi-tza, ordea, ez da beti kolorez beterikoa izan. "E-maitzak heltzen ez direnean, oso garai txarrak izaten dira. Guraso-ek ikas-teko esaten dizute eta eskiak egun osoa eskatzen du". Kontuan hartu behar dugu selekzio-kideak hamaika hilabetez jarduten dutela lanean. Atsedena maiatzean hartzen dute eta horrez gainera etxetik kanpo daude urte osoan. "Hori dela eta, 19 urte bete nituenean ikasketak utzi eta urtebete eman nuen eskiatzen bakarrik" dio Mikelek. "Hori egin ondoren, eta hainbat arrazoi zirela medio, eskiatzeari utzi nion" gaineratzen du. Egundak lagunak baino ez dizkio ematen eta une txarrak ahaztu eta gero, eskiatzen jarraitzen du.

Elkarrizketatuaren hitz jarioak Europa erdialderantz eramán gaitu. Huraxe omen da eskiaren sehaska eta harrobia. "Austrian eta Suitzan lehen kirola eskia da. Hango eski estazioetan entrenatzen genuenez,

eskiatzaile haundiak ere ikusi ahal izan nituen. Tomba ezagunaren hankak ikusi eta nireekin alderatu nituenean ulertu nuen zein zen benetako aldea!

Mikel Barcenak bazuen beste kontu eta bitxikeria gehiago guri kontatzeko, baina guk amaitu egin behar genuen elkarrizketa. Bukatzeko Arabako eskiaren egoera izan genuen mintzagai. Hona hemen erantzuna: "Ezinezkoa da futbolariak egotea futbol zelairik ez badago. Honetan ere berdin gertatzen da. Mendi garaiak, eski estazioak eta elurra ezinbestekoak dira eta guk, zoritxarrez, ez dauzkagu"

Ismael Díaz de

Mendibil



ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



Florida Azoka ☎ 13 24 48
2 eta 3
Abastos Azoka ☎ 26 78 97
2 eta 3
GASTEIZ



JOSEBA
HARATEGIA

PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ

**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**

*aukerarik zabalena
kalitaterik onena*

AZAROAREN 29AN ELEFANTE BLANCO ARETOAN EGON ZIREN

BURNING: ondo egiten dakitena Gasteizen eskainiz

ADINAK, MODAK edo argitale-txeen interesek ez dituzte aldatu. Madrilgo boskote honek orain hogeit urte hasi zuen bideari eusten dio. Rock and Rolla dute beraien bizitza, eta eskeintzen dituzten agerraldietan rocka besterik ez dago. Gure hiriko Elefante Blanco aretoan eman zigutenak ez zuen ezer berririk ekarri: betiko rocka, betiko kitarrak, betiko ahotsa; ez, ordea, betiko Burningkideak.

Bizitzak berak ez ditu ondo zaindu. Ez zuten musikaren alde lasaia aukeratu eta, ondorioz, prezio handia ordaindu behar izan dute. Egun, bi besterik ez dira jatorrizko Burning talde hartatik geratzen direnak. Hala ere, Pepe Risik eta Jhonnyk ez dute orain bi hamarkada hartu zuten trena utzi nahi.

Bizirik jarraitzen dute, are gehiago zuzenean grabaturiko diska bikoitza agertu zenetik. Duela hiru urteko grabazio hartan beraien arrakasta handienak berreskuratu ahal izan genituen, azaro amaierako gau hartan entzun genituenak hain zuzen ere.

Burning zuzenean

Burning taldearen kontzertu batera doanak badaki zer aurkituko duen, eta horrexegatik despistatu gutxi izaten dira Madrilgo boskotearen zuzenekoetan. Eta hori horrela izanik, Elefante Blanco bildu ziren lagun guztiak gozatzeko prest zeuden hasiera-hasieratik.

Larru beltzezko kazadorak, bakeroak, betaurreko ilunak eta Rock and Rollaren oinarritzko akordeak. Norbaitek ordurarte zalantzaren bat izanez gero, laster topatu zuen Burningen betiko egia.

Risik eta Jhonnyk oraindik badakite ongi pasatzen eskenatokian, eta alaitasun horrek erraz kutsatzen ditu ikusentzulegoa eta eskuartean dauzkaten musikatresnak; ez, tamalez, beren ezta-riak. Eskerrak publikoak abestiak eza-

gutzen zituen.

Burningen abestiak

Pixkanaka-pixkanaka espero genituen abestiak ailegatu zitzaizkigun: "Mientelas" (country erritmora moldatuta). "No es extraño (que tu estes loca por mi)" "Baila mientras puedas" eta "Jim Dinamita" izan ziren lehenengoak. Minutu xamurrenak "Una noche sin ti" abestiarekin bizi izan genituen. Publikoa bereganaturik, une egokia zuten duela urte asko taldearen himno bilakatu zen kantarentzat: "Que hace una chica como tu en un sitio como este", mementu aproposa kanta ezagun horren azken konpasak Lou Reeden "Walk on the Wild Side" rekin lotzeko.

Orain bai, festa osoa genuen eta txapli-guen moduan "Es Especial", "Esto es un atraco", "Mi hermano" eta "Mueve tus caderas" (kontzertuko unerik onena) bota zituzten. Jhonnyren kitarra erraztasun osoz murgiltzen zen Rockaren uretan emaitza ezin hobea lortuz. Publikoak, biziki, eskertu zion.

"Beno, omenaldi txiki bat honen guztiaren errudunarentzat", izan ziren agurtzeko erabili zituzten hitzak. Jarraian Chuck Berryren "Jhonny be good" abesti hilezina, eta denok etxera. Gu pozik eta Burning, noiz arte gurekin?

Orain dela bi urte lehenengo diskoa kaleratu zuten, dextenteko arrakasta lortuz. Orduz geroztik kontzertuz kontzertu ibili dira eta Euskal Herriko talde onenatariko bat bihurtu zaigu. Eta orain bigarrena: Gaua heldu orduko letra eta musika landuagoekin, non taldearen heldutasuna nabaritzen den, baina beti ere beren estiloan, Exkixuren estiloan hain zuzen. GEU GASTEIZ taldekide batzuekin egon zen honi eta beste gaiei buruz mintzateko.



Bi urte pasa ondoren publikoa zuen bigarren lanaren zain zegoen. Zer espero duzue disko berri honekin?

Urte bi egin doguz grabatu barik, kontzertuak direla medio ez dogu-ta denbora larregi eduki apur bat diskoa hobetzeko. Lehenengo diskoan beti frekotasuna agertzen da eta guk



PORTAL DEL
REY
GASTEIZ



**IRUNA
TABERNA**
HAMARRETAOKAK

KUTXI, 63 • Tfnoa: 26 58 52
GASTEIZ

ANBOTO

TABERNA - JATETXEA
EGUNEKO MENUA

Kutxilleria, 29 - Tfnoa. 25 00 93 -
01001 GASTEIZ

Exkixu: "Nahiko ziur gauz bigarrena hobe dela"



denboraldi bat igaro nahi genuen, apurtxo bat gehiago ikasita ea freskotasun hori, beste barik, mantentzen dogun jakiteko.

Talde gehienentzat bigarren diskoa pauso garrantzitsua omen da, nola ikusten duzue pauso hori?

Beti egoten da hori, talde asko ezagunak egiten dira lehenengo diskoarekin, eta bigarrena txarragoa dala edo... Gu nahiko zihur gauz bigarrena hobe dela. Gu pozik gauz lanaz eta uste dogu jendeak ere holan onartuko duela.

Zer dela eta itxoi ten duzue talde askok Durangoko azokara diskoa kaleratzeko? zaila da euskaraz abesten duen talde batentzat diskoak saltzea?

Krisia pilo bat igertzen da danian. Baina proportzioa ona badokozu eta gero dexente samarra bazara, beti saltzen da. Hor dago erroka. Gu hor ari gara, saltzen badugu eta

jendea gustatzen bajako..., gainera freskotasuna ondiño hor dago.

Azken urtetako taldeek trikitrixa, alboka eta halako tresnak ere erabiltzen dituzte. Hori zer da moda bat?

Euskal musika ikusteko beste era bat, ez da moda bat. Beste aldetik euskal instrumentuen eboluzio bat egon da, trikitrixa jo duen jendeak gorakada izan du eta Tapia edo Junkerak egin dituen aurrepenek ba influentzia asko izan dute jendearengan. Dena den, kontutan izan behar da zer motatako musika egin nahi duzun.

Letrak asko lantzen dituzue, zer bilatzen duzue?

Letrak egiten doguz era batean jendeak berak, apur bat pentsatzeko edo, norberak era batean erabiltzeko. Lehenengo diskoan holan egin gendun, maketan be letreei garrantzie eman gintzen, ta orain zaindu egin dogu ahalik eta gehien.

Arabako taldeen eta bertako kontzertuen berririk baduzue?

Bai, Bizkar Hezurra, Trikitrixa Kontrairo edo Betagarri... Gero hemen problema bat dago: Gasteizen edo Araban ez dagoela kontzertu asko. Arraroa da talde euskaldunen kontzertuak hain guxi izatea, ez dakigu zergaitik baina.

Euskararen aldeko mugimenduetan egon zarete. Nola ikusten duzue euskararen egoera, eta batez ere Araban?

Aurreratu egin da, euskaldunok lehenengo pausua ematen dogu. Hemen baino gehiago adibidez, gu bizkaitarrak gara eta, Bizkaian Ezkerraldean igertzen da ikastolen eragina. Uste dogu jendeak ez duela ondo ezagutzen Araban benetan dagoen giroa. Bizkaian eta Gipuzkoan esaten dogu garelako "la ostia", eta ez da holan, guretzako Araban askoz gogorago da euskalduna izatea.

David Alvez

Gaua Heldu Orduko

EXKIXU, lehengo Gernikako laukotea seikote bihurtu zaigu "Gaua Heldu Orduko" bigarren diska dugun hau gauzatzeke. Poliki-poliki, iskanbilarik sortu gabe, bizkaitar hauek leku garrantzitsua lortu dute gaurko Euskal Herriko musikan. Horrela adierazten du aurtengo Durangoko Euskal Liburu eta Diska Azokan izandako harrerak.

Askok kostatu zaie Bizkaiko mugak apurtzea Euskal Herria osora zabaltzeko. Lehendabiziko lanak apurka-apurka egin zuen bidea, horretan zuzeneko bikainek lagundu zioten, eta gaur, esan dezakegu Exkixu Euskadiko erraldoi bat bilakatu dela, nahiz eta gure erraldoiak oso han-

diak ez izan.

"Sua, sua" bezalako abestiei erreleboa heldu zaie "Gaua Heldu Orduko" honekin. Zuzeneko emanaldietakoa diskara pasatzea lortu dute, eta hori, jakina, publikoak eskertuko du.

"Sorginen Leizean" lehendabiziko singlea aukeratua izan da, maila altuko abestia bai, baina ez gorantz begiratzen duen bakarra.

Diska Rock latzaz, tradizioz, eta bateria, baxua, kitarra, ahotsa, alboka, txistua eta trikitiak denak batera joz sortzen duten indarrez beterik dago.

Txabi Arnal Gil

azkarprint
Cercas Bajas, 4
Tel. 27 92 51

ZURE INPRIMATEGIA EUSKARAZ

Kolorezko Fotokopiak ere egiten ditugu

GASTEIZ

INPRIMATEGIA

BIKOTE

LABERNA

Julian de Apraiz 5 Tfnoa: 22 86 39
Berezitasunak: bikotitoak eta etxeko hanburgesak

Lagun berriak egin euskaraz mintzatuz



mintza laguna!

aldizkarigintzan gabiltzanon artean, mito bat dago oso zabaldurik: inprentetako iratxoena, alegia. Guk inoiz ez dugu hanka-sartzerik, perfektuak gara kasik. Dena den, inprentetan, bada iratxo maltzur bat gure kontra aritzen dena. Aurreko alean, halako zerbait gertatu zitzaigun. Mintzalagun kanpainaren berri eman nahi genizuen baina zati bat desagertu eta beste bat lekuz aldatu zigun iratxo madarikatu hark. Hona, bada, aurreko hilabeteen kontatu nahi genizuen ☐

DUELA HAINBAT

URTE Bagera Donostiako euskaldunen elkarteak, euskaltegi-tako ikasleek kalean euskara erabiltzeko duten zailtasunaz ondo jabetuta, mintzalagunaren egitasmoa abian jarri zuen. Elkarteko

zenbait kide aritu ziren horretan lanean eta saiakera batzuen ostean, "Tandem" izenekoak osatzen aditua zen pertsona baten laguntzaz eta metodologia horretan oinarrituta "Mintzalaguna" egitasmoa finkatu zuten.

Atzerriko mintzairak irakas-

ten dituzten akademia eta ikastegi batzuek "Tandem" izenez ezagutzen den metodoa erabili izan dute beren ikasleak hizkuntza berrietan murgilarazteko. Hizkuntza desberdinak menperatzen dituzten bi edo hiru lagun arteko trukea egitea da metodo honen helburu nagusia. Era horretan, esatera-

ko, batak alemaniera irakastean dion bitartean, besteak, berriz, ingelera edo gaztelera erakusten dio bere hizkuntza-truke lagunari

Guk eskaini nahi dizuegun "mintzalaguna" egitasmoak badu horrekin guztiarekin parekotasunik, baina baita des-

1887an sortua • Jose Ramon Agiriano

restaurante • jantoki

DOS HERMANOS

madre vedruna, 10

13 29 34 - 13 44 46

geugasteiz
aldizkaria

1996

urte berri on

LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Portal del Rey, 24

Tfnoa: 25 56 90

GASTEIZ

Denbo rapAsa




mintzalagun euskaldunak euskaraz egingo du, eta era berean, euskara ikasten ari dena euskaraz hitzegiten saiatu. Ez dago, beraz, arestian aipaturiko elkarrekiko hizkuntza-trukerik. Gai-nontzerakoan, mintzalagunak eta euskara ikasleak, norberaren hobby edo zaletasunak, esperientziak eta abar trukatzeko aukera izango dute.



kanpaina honek Gaztediaren Foru Erakundearen babesa du

Egitasmo berri honetan parte hartu nahi duenak galdeketa fitxa bat bete beharko du, bertan bere datu pertsonalak, ordu-tegia, zaletasunak eta antzeko beste zenbait argibide emanez. Datu guztiak bildu ondoren, euskaldunek eta euskara-ikasleek osaturiko bikoteak, hirukoteak, taldeak sortuko dira eta elkartzeari ekingo diote aldizka (astean behin, bitan...). Azkenik, partaideen arteko elkartzaldiak eta ikasleen hizketa-emaitzak ebaluatuko dira.


Argi dugu ezer berririk ez dugula asmatu. Donostian emaitza onak izan dituen esperientzia hona ekarri eta gure artean abian jartzea da gure asmoa. Egun, Donostiako Bagera elkarteak, "mintzalagunarena" ondo errotutako egitasmoa da. Geu elkartekook Gasteizen ere antzeko zerbeit lortzeko esperantza dugu, premia. haundia daukagu eta.



ZEHARRETARA: 1. Pilotari gasteiztarra, munduko txapelduna. (Ald.) Musika taldea. 2. Edo. Azkena. Erakuslea. 3. Aski. Berrogeita hamar. 4. Oso ona, bikaina. 5. Bizka eraz, omen. Pirineotako gailurra. lodoa. 6. Zamorako autoetan. Merezimendu. 7. Sindikatu. Nekagarri. 8. Lehena. Sindikatu. Uretan hil. 9. Oxigenoa. Joan nadin. Ezeztatzeko. 10. Hika, dizut. Joan den urtean

lodoa. 3. Gura. Tarragonako autoetan. Lehena. 4. Fosforoa. (Ald.) Muin, funts. Sindikatu. 5. Azken. 6. Erretereria. 7. Hala ere, hala eta guztiz. Lehen pertsona. 8. Errepikaturik, txori bat. Oihal eta ehunak egiteko gai. Lehena. 9. Edateko. Oxigenoa. Iritiz, aburuz. 10. Dotore, eder. (Ald.) Animalia perkea.

GOITIK BEHERA: 1. Arabako herri bat. (Ald.) Musika mota. 2. Euskal marrazkigile ospetsu bat.



ETXEZARRA jatetxetik:

Aitor eta Miguel Angelekin hizketan



DUELA BI HILABETE Kutxin barrena ibilaldi bat hasi genuen. Ibilaldi horrekin jarraituz, oraingo honetan Brulleria enparantzaruntz abiatu gara eta han, Txikita kalean, etxe dotore-dotore bat aurkitu dugu. Etxe horretan dago, hain zuzen, gure gaurko helburua: Etxe Zaharra jatetxea. Aipagarria da, orain bi hilabete ireki zuten jatetxe honen aparteko kokagunea. Alboan ditu Gobeo-Gebara-San Juan, Portaloia, eta Fresno Markesaren jauregia eta Brulleria enparantzan Andatarren dorrea. Leku berezi honetan Aitor eta Miguel Angelekin topo egin dugu. Biekin solasaldian aritu gara.

Jatetxea Miguel Angel Konpañonen ahaleginei esker sortu zen 1995eko urtarrilaren 24an. Berak, etxea erabat utzirik zegoela, erosi egin zuen orain urte asko eta bakar-bakarrik aritu da berriztatzen gaur ezagutzen dugun moduan utzi arte. Konpa abizena segu-

AGENDA • URTARRILA • AGENDA • URTARRILA • AGENDA • URTARRILA • AGENDA



Kafe AN TZO KIA
San Vicente 2
(Jardines Albiaren alboan)
BILBO
1996KO URTARRILA

URTARRILAK 2

17,00 HAUR IPUIN KONTAKETA
23,00 KAFE MUSIKA ZUZENEAN

URTARRILAK 3

23,00 KAFE MUSIKA ZUZENEAN

URTARRILAK 4 ETA 5

23,00 ANTONIO BRESCHI (pianoa)
JOE MC HUGH (pipe, wistle, buzuki)
ALI TAJBAKHS (perkusioa)

URTARRILAK 7

17,00 HAUR JAIA



urtarrilaren 26an 8etatik aurrera

TXISTORRADA



Gaztetxean

anima zaitetz!

"ARGOS"
ZURE BURUA
EZAGUTZEKO
TOKIA

Astrologi aholkularitza
Kinol eta terapia-masajea
Bete-beteko terapiak
Astrografia
Emeflexoterapia
Hastanoak

Gasteizko hiribidea 89 (atzealdea)
Tfnoak: 24 26 71 eta 22 93 29

sogotzi

ZERBITZU OFIZIALA ARABAN

Anglo Vasco kalea, 3
Tfnoa: (945) 27 13 33 - Fax: (945) 27 15 99
01002 GASTEIZ

Electrolux

ZANUSSI

De Dietrich

Corberó

soberana

teka

LIEBHERR

raski arabar askotxorentzat aski ezaguna izango da. Miguel Angel gure solaskidea "Konpa" Gasteizko pilotari ospetsuaren osaba dugu, hain zuzen ere.

Zein bitxikeri aurki dezakegu jatetxe honetan?

Nagusiki bi aipatuko nituzke, Angostinatik ekarritako erlojua eta egurrezko labea. Labe honi ezker sekulako jakiak dastatzeko aukera dugu.

Nolako etorkizuna ikusten diozu jatetxe berri honi?

Egia esan oso baikorra naiz eta etorkizun ezin hobea ikusten diot nik. Lekua Gasteizen dagoen onenetakoa da eta giroa ere primerakoa, inguruan gazte asko ibiltzen da eta. Badakigu Gasteizen jatetxe asko eta konpetentzia handia dagoela, are gehiago jateke mejikarrak eta amerikanoak gure artean daudenetik, baina hala ere, borrokatu egingo dugu hauen guztien artean leku bat edukitzeko.

Jateko zer edo zer gomendatu behar bazenigu zein plater izango litzateke?

Gure jatetxea berezia da eta berezitasuna gure egurrezko labean dago. Hori aprobe-

txatzen saiatzen gara eta horregatik gure espezialitatea janari erreak dira, arkume eta txerrikume erre esaterako. Arrainak ere lantzen ditugu eta hauen artean nola ez makailua aurki dezakezu. Makailua era askotara prestatzen dugu: kokotxa moduan, pilpilean eta abar... Beraz, honera etorritik gero hemengo sukaldaritza aurkituko duzu.

Ligatzeko asmoz datorrenari zein menu prestatuko zenioke?

Lehenengo eta behin lekua erreserbatzeko eskatuko nioke, eta leku goxo bat aukeratu. Ondoren afaria etorriko litzateke. Hasteko marisko apur bat, almejak, behar bada, eta jarraian arkume erre; edateko, berriz, txanpaina. Baina ligatzeko onena berriketa da, hizketaldi on bat beharrezkoa da bestela jai daukazu.

Larunbateko futbol partiduak direla eta, hostalari eta telebistaren arteko aukia pil-pilean dago. Eraginik ba al du horrek zuenengan?

Gu ez gaude futbolaren kontra baina argi daukaguna da larunbatetako telebistako futbolak kalte handia egiten digula, are gehiago Gasteizen daukagun klimarekin.

Partidua amaitu arte etxean gustora egonda, hamar t' erdietan, jadanik, ez duzu kalera ateratzeko gogorik izaten. Hori guretzat oso kaltegarria da.

Oraingoan ere, beti bezala, goseak atera gara jatetxetik. Gogoz probatuko genuke guk arkume erre hori. Sail honetan hamarren bat jatetxe bisitatu ditugu eta, tamalez, oraindik ez dugu jakirik dastatu. Aupa Erregeak! Olentzerok ez zigun afari handirik ekarri eta. Ea zuek portatzen zareten!

Karlos Fdz. de Betoño



AGENDA • URTARRILA • AGENDA • URTARRILA • AGENDA • URTARRILA • AGENDA

GEUrekin mendira

ARRIETA urtarrilaren 21ean

oharrak

eguna eta ordua bere horretan mantendu direla segurtatzeko, aurreko astean ondorengo telefonora dei dezakezu: 22 21 53
Ez ahaztu hamaiketakoa

irteera

goizeko bederatzia eta laurdenetan Lasarteko elizatik

itzulera

ordu bietan

ibilbidea

eraza eta eroso: Lasarte, Arrieta gaina, Lendiz gaina, Castillo, Lasarte.



Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldia • Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN

"kalitatea eta erosotasuna zure esku"



Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran • GASTEIZ

ESTABA DA METAFISIKOA!




Zorionak eta urte berri on

GEU 
GASTEIZ EUSKALDUNA


1996

geu *gasteiz*
aldizkaria



Floridako altxorra !

35



adaka 
madinabeitia
altzariak • apaindurak
Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ

GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

DEPARTAMENTUA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.	FAXA
UDALETXEA	PRENTSA KABINETETA GIZARTE ONGIZATEA (ARGIBIDEAK) GAZTEEN ARGIBIDEETARAKO BULEGOA PERTSONAL SAILA IDAZKARITZA	Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g	16 13 37 16 13 44 16 13 30 16 11 41 16 13 20	16 13 60 16 16 53
BULEGO TEKNIKOAK	ARGIBIDE ETA ERREGISTRO BULEGOA ERROLDA ETA SOLDADUTZA BORONDATEZKO DIRU-BILKETA ZERGEN GESTIOA INGURUGIROA	Dato, 11 Dato, 11 Dato, 11 Dato, 11 Dato, 11	16 11 87 16 11 06 16 16 68 16 11 33 16 11 20	16 11 88
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA (DEMSAC)	KONTSUMITZAILEEN INFORMA- ZIORAKO UDAL BULEGOA (KIUB)		16 12 40	
UDAL ARTXIBOA	ARTXIBOA-ARGIBIDEAK		16 14 89	16 14 99
ETXEBIZITZA ETA HIRI BERRIKUNTZARAKO UDAL ERAGINTEGIA	ARGIBIDEAK		16 12 88	
VILLA SUSO JAUREGIA	ARGIBIDEAK		16 12 70	
HEZKUNTZA SAILA (IME)		Fray Zacarias	16 12 16	
GIZARTE ETXEAK	JUDIMENDI LANDATXO IPARRALDE ABETXUKO ARIZNABARRA	Urriak 12 kalea, z/g Santa Maria kalea, 4 Zuberoa plaza, z/g	16 17 40 16 16 82 16 17 60 24 47 14 13 36 91	
EUROPA GIZARTE-ETXEA	ARGIBIDEAK-KULTURA BILTZAR ETA TURISMO BULEGOA		16 12 31 16 12 61	
KONTZIENTZI ERAGOZ- PENERAK BULEGOA			13 36 91	

